

ZAHARTZEN NAIZENEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Laracor (Irlanda), 1699ko uda. Jonathan Swift idazle, politikari eta elizgizon irlandarra jaioterrira itzuli zen, eta hama-bost eliztarreko kongregazio txikiaren ardura hartu zuen Dublinetik 32 kilometrorra dagoen herrixkan. Lan gutxi zuenez, lorategia zaintzen, bikarioetxea berregiten eta, besteak beste, zahartzaroz hausnartzen ematen zuen denbora.

Artean, 31 urteko Swift gazteak ez zeukan libururik argitaratuta, mende laurdena falta zen *Gulliverren bidaiak* (1726) bere lanik ezagunena amaitzeko, eta mende eta erdi haren aurreikuspen gaitasun harrigarriaz jabetzeko; *Gulliverrek bidaiak* nobelan Marteko ilar-giak izan zituen hizpide, baina, ofizialki, Marteren bi satellite naturalak, Fobos eta Deimos, 1877an aurkitu zituen Asaph Hall astronomoak.

Hala ere, ordurako gizon zentzuduna zela ezagun zuen, zahartzarora iristean izan nahi zuen jarreraz egindako hausnarketak erakutsi bezala. Paper batean eskuz *When I come to be old* (Zahartzen naizenean) izenburua idatzi zuen, aldamenean urtea (1699), eta, ondoren, honako zerrenda hau:

“Ez naiz emakume gazte batekin ez-konduko.

Ez dut gazteen konpainia onartuko, gazteek benetan nirekin egon nahi dutenean izan ezik.

Ez naiz ezatsegina, betiluna nahiz mesfidatia izango.

Ez diet iseka egingo egungo ohiturei, esamoldeei, modei, gizakiei zein gerrei.

Ez ditut hurrak gogoko izango, ~~eta ez diet niregana hurbiltzen ere utziko.~~ (Egileak berak eskuizkribuan urratua).

Ez diet istorio bera pertsona berdinei behin eta berriro kontatuko.

Ez naiz diruzalea izango.

Duintasuna edo garbitasuna zainduko ditut, ezatsegina izateko beldur bainaiz.

Ez naiz zorrotzegia izango gazteekin, eta haien gaztaroko erokeria eta ahuleziki barkabera izango naiz.

Ez diet mirabeei edo bestelako alproja berritsuei jaramonik egingo.


Ez diot inori gehiegizko aholkurik emango eta enbarazurik egingo, besteek eskatzen ez badute.

Zenbait lagun onek puntu hauetatik zein eta zertan ez ditudan betetzen esatea nahi dut, eta horren arabera nire jarrera zuzendu.

Ez dut gehiegi hitz egingo, batez ere nire buruaz.

Ez dut iraganeko nire edertasunaz, indarraz edo damekiko esku onaz arrandia egingo.

Ez dut emakume gazteengandik lausengurik onartuko eta ez dut sinetsiko haiek ni maite nazaketenik, *et eos qui hereditatem captant, odisse ac vitare*



CHARLES JERVAS

Jonathan Swift (1667-1945)

[eta herentzien bila doazenak gaitzetsi eta saihestu nahi zituela, alegia].

Ez naiz baikorra ez dogmatikoa izango.

Ez naiz arau hauek guztiak betetzen tematuko, azkenean bat bera ere beteko ez dudana susmoa baitut”.

Egile batzuek diote bizitzako azken 15-20 urteak depresioak jota eman zituela Swiftek. Beste batzuen ustez 1738an hasi zen gaixotasun seinaleak ematen eta 1742an enbolia batek hitz egiteko gaitasuna eta gainerako buru-ahalmenak galtzea eragin omen zion. Kontua da haren beldurrik handiena, ahalmen mentalen urritasuna, gauzatu zela, eta gaztaroan idatzitako zerrenda ganoraz betetzeko aukerarik ez zuela izan. 1745ean hil zen, 77 urte zituela. Eta haren azken nahiak behintzat bete zituzten ingurukoek. Pobreen artean banatzeko eta zoroetxe bat eraikitzeko erabili zituzten Swiften ondasunak. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus